

Paisaiak eta animaliak argazkitan

Patxi Renobalesen erakusketa Jubilatuen tabernan ▶ 5



Eraikuntzako langileen grebak hilabetea egin du

ESKAERAK ▶ Urteko lanorduak murriztea, bajaran kobratzea eta bi urteko komenioa eskatzen dute

AKORDIO EZA ▶ Atzo bilkura egin zuten Trianguloan; negoziaketa mahaia ez du akordiorik lortu ▶ 2



Eraikuntza greba dela-eta Tolosako obra bat geldirik, maiatzaren 10etik grebarako deialdia egiten duen kartela aurrealdean duela. JOXEMI SAIZAR

ANOETA ▶

Udaleko armarria betirako onartu dute

Basagaingo burdin aroko herria, kukua eta Oria ibaia ditu ▶ 4

FERNANDO BURRWS ▶
TXILEKO IRAKASLEA



DANI GIBELALDE

«Autoestima galduarazi egin zieten maputxeei»

Ibarrako Sendi Ekintzaren zozketa, teileria egiteko ▶ 6

VILLABONA ▶

Etxeberria entregatu egin dezake Frantziak

Hilaren 29an beteko du zigorra presoak ▶ 4

OLATZ ARIZMENDI ▶ AURRERAKO LEHENDAKARI OHIA

«Elkartea desagertzeko zorian izan da; geroaz ez du kezkarik jendeak»

Aurrera kirol elkarteko zuzendaritza batzorde berria izendatu berri dute ▶ 7



JAIONE ASTIBIA

BIDEGOIAN ▶

HITZA txapelketako finalerdiak jokoan

Hilaren 16an izango da kadete mailan ▶ 5

EKONOMIA ▶



MANUEL MONTERO
ELA

«Gure sektorean normala da gaixotzea eta gogorra da kobratu gabe egotea bajako lehen hiru egunetan»



JOSE IBAÑEZ
CCOO

«Oso puntu garrantzitsua da errelebo kontratoarena. Zein dago lanerako baldintzetan 60 urterekin eraikuntzan?»



IÑAKI ELDUAIEN
LAB

«Sektore honetan 20-25 urte lanean eraman eta behin behineko kontratoarekin daudenak ezagutzen ditut»

Eraikuntzako langileek hilabetea egin dute greban, akordiork lortu gabe

Gaixotasun bajetan lehen egunetik kobratzea, urteko lanorduak murriztea eta komenioaren iraupena dira desadostasun nagusienak bi aldeen artean



Atzo eguerdian bilkura informatiboa izan zuten eraikuntzako langileek Trianguloan. JOXEMI SAIZAR

JOXEMI SAIZAR

Duela hilabete greban hasi zirenetik asteartero bezala, atzo eguerdian eraikuntza sektoreko langileak elkartu ziren Triangulo plazan. Manifestazioa egitekoak ziren, baina azkenean ez zuten egin Beasaingo eta Zumarragako lankideak ez zirelako etorri, bere herrietan ere bilerak zituztelako.

Bileran, ELA, LAB, CCOO eta UGT sindikatuek Adegri patronalarekin egindako elkarrizketen berri eman zuten delegatuak. Desadostasun nagusienak hiru puntutan biltzen dira: komenioaren iraupena, bajetako soldata eta urteko lanorduetan murriztea. Maiatzaren 10ean greban jarri zirenetik borroka luzea daramate eraikuntzako langileek. Goizero Trianguloan elkartzen dira eta pikete informatiboak obren jarraipena egiten dute.

Eguerdiko bilkuran ondoren, HITZAK hiru sindikatutako ordezkariekin hitz egiteko aukera izan zuen. ELAko Manuel Montero negoziaketaren ondorioen zain zegoen: «Azken eskaintza egin eta negoziaketa hautsi nahi du patronalak». Negoziaketan eztabaidagai diren hiru puntu nagusienak ai-

patu zituen: komenioaren iraupena, gaixotasun bajaran lehen egunetik kobratzea eta lanorduen murrizketa. «Gaur egun langilea baja dagoenean lehen hiru egunetan ez du kobratzen. Hirugarren egunetik 20. eguna bitarte %60a ordaintzen da eta hortik aurrera %75a. Enpresek kostearen diferentzia jartzea eta lehen egunetik %75a kobratu nahi dugu. Sektore honetan kanpoan lan egiten dugu: hotza, haizea, euria eta baldintza txarretan. Katarroak, ginpak-eta harrapatzea ohikoa da. Gogorra da kobratu gabe egotea lehen hiru egunetan», dio Monterok. Patronalak ez omen du ezer jakin nahi gai honetaz.

Komenioa bi urterako izatea eskatzen dute eta patronalak lau urterako nahi du. Lanaldiaren murrizketan ere ez daude ados bi aldeak. Bi urtetan urteroko hamar ordu jaistea eskatzen dute langileek eta patronalak lau urteetan 3, 3, 5 eta 5 ordu jaistea eskaintzen du.

CCOOk Jose Ibañezek adierazi zuen lau sindikatuak oso elkartuta daudela eta ez dutela mahaia hautsi nahi. «Oso puntu garrantzitsua da errelebo kontratoarena. Zein dago lanerako baldintzetan 60 urterekin eraikuntzan?», dio Ibañezek.

Patronalaren aldetik «egoe- ra tentsatzan» ari direla dio, greba utz dezaten, baina Tolosaldea, Gipuzkoa eta EAE «erabat» geldituta dagoela dio eta ez dutela lortuko. Autonomoak ere geldituta daudela dio: «Astelenean obrara etorri ziren, baina beraiek erabaki dute joatea, jendea begira dagoela ikusita».

Negoziaketaren inguruan ez kor agertu zen Ibañez: «Ordu pila daramate negoziatzen, baina ez dute aurreratu. Azken erabakia langileok hartuko dugu asanbladan. Hala adostu dugu lau sindikatuok».

Negoziatzea, lorpena

Grebaren lehen aste hauetan langileek kontzentrazioak egin dituzte eskualdeka. Andoaindik Tolosaraino bitartekoak biltzen dira Tolosan. Ostiralean Donostian egin dituzte mobilizazioak.

«Gogorra ari da izaten, baina lehen lorpen garrantzitsua patronala negoziatzera eseriaraztea izan da. Lau aste greban egon behar izan dugu hori lortzeko. Komenio duina nahi dugu», adierazi dio HITZARI Iñaki Elduainen LABeko ordezkaririk. Lehengo ostiraletik ari

dira negoziatzen bi aldeak, sindikatuak eta patronala. Adegik baldintza batzuk jartzen zituela dio: «Hainbat puntutaz ezin zela hitz egin, justu langileen ordezkariekin ikuspegitik garrantzitsuenak. Adibidez kontratazioa. Sektore honetan 20-25 urte lanean eraman eta behin behineko kontratoarekin daudenak ezagutzen ditut».

Autonomoak eraikuntza langileen kontra jartzen saiatu dela patronala dio Elduainenek. «Normala da haserre egotea, enpresa txikitzen ere bai, ondorio handiak dituelako, baina denentzat», dio. «Astelene-rako kezka genuen. Enfrentamenduak ebitatu egin ditugu. Langileen artean ari gara. Azkenean porrot egin dute. Jende oso gutxi joan da lanera eta gure egoera azaltzen joan garenean askok onartu eta joan egin dira», eranstean du.

Langileak gogor daude, «minduta sentitu direlako». «Aspaldi eman ez den batasuna» dagoela langileen artean azpimarratzen du.

Negoziaketa mahaiarekin ere kezkatuta agertu da LABeko kidea «patronala ez delako gai irtenbide txukun bat emateko». Atzoko bileran akordio-rik ez bazuten lortzen mahaitik alde egingo zutela esan zien Adegik sindikatuak eta hori «txantaje hutsa» iruditzen zaio.

Hiru eskakizun nagusien artetik gaixotasun bajena aipatzen du bereziki LABekoak. «Orain prest daude kantitateaz hitz egiteko, lehen kontzeptua ere ez zuten onartzen. Langile guztiek lehen egunetik kobratzen dute baja. Sektore honetan ez dugu orain arte horrelakorik izan».

Sektoreko komenioa izatearen garrantzia aipatu du baita ere Elduainenek: «Enpresaz enpresa lortzen dira akordioak, baina orohar baldintza kaskarretan gaude. Orain da gure eskubideak lortzeko unea». Haserre daudenei «gure egoera ulertzeko» eskatuko lieke. Batzuk —zuzenean eraikuntzarekin harremanik ez dutenak— haserretzeko motiboak izatea ulertzen du Elduainenek.

Herri Irratia
RADIO POPULAR

Herri Irratia-ak premia handiarekin behar du:

MERKATAL AGENTEA

Gipuzkoa eremurako. Berezko ibilgailua eskatzen da. Bezeroen kartera eta adostu beharreko baldintzak eskaintzen dira. Interesa dutenak bidali curriculum vitae-a.

Herri Irratia, Garibai 19, 20004 DONOSTIA helbidera, info@herri-irratia.com helbidera edo deitu 943 423 644 edo 943 43 02 24 telefono zenbakira.

TOLOSA ▶ ESTETIKA

Laser depilazioa, eskaintza berria

Maite Estetika Zentru Integralak laser depilazioa eskainiko du lasterrera; etzi doako informazioa emango dute bertan

LEIRE MONTES

Presoterapia, elitium-a, solarium-a, aurpegiko zainketa, manikura, pedikura, makilaje saioak... Era guztietako tratamenduak eskaintzen dituzte Maite Estetika Zentru Integralan. Eta, orain, laser depilazioa ere bai. «Askok azaldu digute laser depilazioarekiko interesa, eta eskaera horiei erantzun nahi izan diegu nolabait», azaldu dio HITZari Maite Jimenez zentruko arduradunak.

Tratamenduei beranduago ekingo dieten arren, «dehenda-biziko kontaktua» aste honetan bertan izango da; izan ere, tratamendua hasi baino lehen diagnostika egitea «ezinbestekoa» da: «Denok ez gara berdinak, eta tratamendua pertsona bakoitzari egokitu behar zaio. Saio horiek egin ahal izango diren edo ez eta nolakoak izango diren jakiteko, aurretik azterketa bat egin behar da». Azterketa hori da, hain zuzen ere, aste honetan bertan Maite Estetika Zentruan egingo dutena.

Ostiralean, hilaren 11, izango da diagnostien eguna. «Hama-bost bat minutu igaroko ditu espezialistak pertsona bakoitzarekin. Proba izateaz gain, doako informazio saioa ere bada hitzordu hori». Besteak beste, tratamenduaren epeen, kostuaren eta ezaugarrien berri jasoko du bezeroak.

Ostiralerako izen-ematea

Diagnostika egin eta informazioa jaso ahal izateko, baina, izena eman behar da aurretik. Interesa dutenek gaur eta bihar egin behar dute eskaria, Estetika Zentruan. Etzirako ordua emango zaie orduan eta hitzordurako hainbat azalpen, guztiak doan. «Konpromisorik gabeko izen-ematea da, doakoa. Eta azterketa ere doainik eskainiko zaiei guztiei», dio Jimenezek.

Tratamenduekin, bestalde, uda ostean hasiko dira, laser depilazioa jaso ondoren ezin baita eguzkia hartu. «Abuzutik aurrera-edo hasiko ginateke saioekin. Orain ez da garaia, eguzkia hartzea debekaturik baitute tratamendua jasotzen dutenak».

Sendagile bat arduratuko da



Balio anitzetarako gelan egingo dituzte laser depilazio saioak. L. MONTES

DOAKO INFORMAZIOA ▶ IZEN-EMATEA

Pertsona guztiak dira desberdinak eta, hortaz, tratamenduak ere aldatu egiten dira batetik bestera. Laser depilazio tratamendua jaso daitekeen ala ez jakiteko, edo zer nolakoa izango den, aurretik diagnostiko bat egitea ezinbestekoa da. Maite Estetika Zentru Integralak azterketa hori egiteko eta informazioa jasotzeko aukera eskaintzen du, doan. Zer egin behar da horretarako?

diagnostika eta tratamendua egiteaz; izan ere, medikuntza-laserra eskainiko du zentruak. «Segurtasuna hobeto bermatuta dago horrela, eta hori oso garrantzitsua iruditzen zaigu bezeroarentzat».

Oraingoz, ileari zuzendutako tratamenduak izango dira nagusi: besapeak, hankak, izter-rondoak, bularra, bizkarra... Hala ere, ez dute baztertzen tratamendua zabaltzea: «Azalaren orbanak kentzeko ere erabiltzen da laser depilazioa. Jendeak eskutatukoaren arabera, ahal izanez gero behintzat,

Telefonoz deitu.

Tratamenduan interesa dutenek eta azterketa hori egin nahi dutenek zentrua deitu behar dute: 943 67 03 83 telefono zenbakira.

Zentrua joan. Estetika zentruan ere eman daiteke izena: Errementari kalean. **Gaur eta bihar.** Gaur eta bihar dira izena emateko azken egunak.

Etzi, hilaren 11. Izena eman dutenei diagnostika egingo zaie.

saioak egokitzen joatea da gure asmoa».

Emakumeak zein gizonak

Tratamendua «guztiei zuzenduta» dagoela azpimarratu du Jimenezek: «Jende askok pentsatzen du tratamendu hauek emakumezkoentzat direla soilik, baina oso oker daude. Gizonezkoentzat ere badira. Azkenaldian, hain zuzen ere, gero eta gizonezko gehiagok ematen du izena. Gurera ere hainbat mutilak eta gizonek deitu dute dagoeneko».

HITZA eskualdeko plaza

- ▶ Interesgarria
- ▶ Zabala
- ▶ Parte-hartzailea
- ▶ Baterakoa

Egin zaitez HITZAren harpidedun!

HITZA egunkaria goizero zure etxeko buzoian jasotzeaz gain, harpidedun izateak dituen abantailez gozatzeko aukera ere izango duzu.

HITZA egunkariak bere harpidedunen artean zozketak, eskualdeko komertzioetan beherapenak... eskainiko ditu.

943 30 43 46

▶ Harpidetza saila / Arreta telefonoa:
astegunetan (08:30etik 20:30era)
larunbatetan (9:00etatik 13:00etara)

tolosaldeko
eta leitzaldeko

hitza

ANOETA ▶ GIZARTEA

Anoetako Udaleko armarri berria behin betirako onartu dute

Hiru elementu nagusi ditu armarri berriak: kukua, Basagaingo burdin aroko herrixka eta Oria ibaia

GARAZI AZKUE

Behin betirako onartu dute Anoetako Udaleko armarri berria, eta jada hasi dira erabiltzen orri ofizialetan eta gutunazalean.

Aranzadi Zientzia elkarteak proposamen berri bat aurkeztu zion Anoetako Udalari 2003ko martxoan, Udalak berak hala eskatuta. Kondaira, natura eta historia ziren proposamen berri horren ardatzak. Beraz, Anoeta identifikatzen duten hiru irudi ageri dira armarrarian.

Batetik, kukua agertzen da herritarrak irudikatzen. Kukua da anoetarren izengoitia; inguruan, Anoetan entzuten omen delako lehenen kukuaren hosta.

Basagaingo burdin aroko herrixka ere agertzen da armarrarian. Anoetaren historia irudikatzen du. Lehen anoetarrak, duela 2.500 urte inguru, Basagaingo mendian kokatu baitziren; beraz, herriaren sorrera irudikatzen du. Eta azkenik, Oria ibaia agertzen da, natura eta geografiaren irudikapen gisara.

Anoetako lehen armarraria XIX. mende amaierako idatzietan aurkitu zuten. Herriko patroia, San Juan Bataiatzailearen errepresentazio sinbolikoa zen, hau da, arkumea. Arkumeak hanka artean ezpata eta biblia zituen.

Errepublikara garaian, herritarren berdintasunaren aurkako eta monarkiaren aldeko ikurrak ezabatu ziren armarrietatik.



Anoetako armarri berria.

tik. Dena dela, herri batzuetan iraun zuten ikurrok, tartean Anoetakoan.

Beraz, jada Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Anoetako Udalak onartua duten armarraria erabiltzen hasiak dira herriko erakundeetan.

VILLABONA ▶ PRESOK

Lander Etxeberria, entregatzeko arriskuan

Hilaren 29an beteko du bere zigorra; maiatzaren 29az geroztik dago gose greban

G. AZKUE

Lander Etxeberria billabonatar presoak ekainaren 29an beteko du zigorra Draguinako (Frantzia) kartzelan, eta entregatua izateko arriskuan dela iragarri dute haren gertukoek. Entrega arrisku hau dela eta, gose greban dago Etxeberria maiatzaren 29az geroztik, eta dagoeneko sei kilo galdu ditu presoak. Etxeberriaren egoera honen ondorioz, lan taldea eratu dute Villabonan, Lander Etxeberriaren askatasuna eskatzeko eta xede horrekin lanean hasiteko.

Lander Askatu taldearen esanetan, «entrega berri honen Frantziako estatuak torturaren atzaparretan jarriko du billabonatarra. Aurrekariak ez zaizkigu falta; Amnistia Internacional bezalako erakundeek ere neurri hau salatu dute». Etxeberriaren aurkako estradizio eskaerarik ez da-

goenez, «bere oinarritzko eskubideek errespetatuak» izan behar dutela gaineratu du Lander Askatu taldeak.

Sortu berri den taldeak bi helburu izango ditu: batetik, Etxeberriaren askatasuna eskatzeko; eta bestetik, Villabonako herritarren babes zabala lortzea.

Lander Askatu plataformak sinadura bilketa egingo du Etxeberriaren askatasuna eskatzeko. Horretarako, bertako agintari eta erakunde ofiziale-tara idatziak bidaliko dituzte. Horren harira, «oso garrantzitsua izango da ahalik eta herritar gehienak entrega eta torturaren aurka agertzea», azaldu dute Etxeberriaren ingurukoek.

Beraz, atxikimendua eta Lander Etxeberriaren askatasuna eskatzeko edozein mezu helarazi nahi duenak, ekainaren 29a bitarte bidali ditzake idatziak landeretxera@euskal-lerria.org helbidera.

ANOETA ▶ JAIK

Gaur izango da Anoetako jaien hasiera; festa giroa izango da gaurtik aurrera

Txoznagunean 18:30ean hasiko dira jaiak, eta plazan 19:00etan

G. AZKUE

Asteburuan ekintza ugari izan baziren ere festen hasiera gaur izango da. Plazan, 18:30ean hasiko da jaia, sardina jatearekin. 18:45ean Loatzoko musika eskolako txalapartariak kukuaren etorrera iragarriko dute. Eta jai

ofizialak 19:00etan hasiko dira: txupinazoa, pregoia, kukuaren jaitziera eta ume eta gaztetxo-en danborrada izango dira. 20:30ean, berriz, Zirikako musika taldea izango da plazan.

Eta txoznagunean dagokionez, 18:30ean hasiko da festa txupinazoarekin eta baztertu-

tako zinegotzien pregoiarekin. 19:00etan kontzentrazioa egingo dute udaletxe aurrean: PNV/EA: urtebete anoetarron eskubideak urratzen lelopean. Ondoren, trikopoteoa egingo dute herritarrek. Eta 23:00etan musika saioa izango da herriko disko jartzaileekin.



Igandean izan zen Mikel Garciaren omenezko Herri Krosa. HITZA

www.tolosaldeko-hitza.info

▶ sar zaitez eskualdeko web atarira

▶ inkestak, eztabaidak, eguneko albisteak, argazki bildumak, zerbitzuak, zorion agurrak...

eztabaidako galdera berria:

zer diozu eraikuntza grebaren inguruan



JADANIK HILABETE ▶ ARRAZOIA DUTE?
▶ ZER EGIN BEHAR DUTE AUTONOMOEK?

ALEGIA ▶ KULTURA

Paisaiak eta animaliak, argazki erakusketako ardatz

Alejandro Gonzalezen margoen ondoren Patxi Renobalesen argazkiek hartu dute lekua Jubilatuen tabernan



Saturditik ateratako Txindokiko irudia. O.ESKIXABEL



Animalien irudi ugari aurkitzen dira. O.ESKIXABEL

OLAIA ESKIXABEL

Alejandro Gonzalez anoetarren margolanak eskegi, eta argazkiak zintzilikatu dituzte orain Jubilatuen tabernan. Patxi Renobales alegiarren argazkiak dira, hain zuzen ere, egungo erakusketa osatzen dutenak.

Orain dela hogeita bi urte inguru hasi zen Renobales argazkiak ateratzen, soldaduska egitera joan zenean. Geroztik,

argazki kamara eskuan duela ikustea ohiko bihurtu da. Hamalau argazki osatzen dute erakusketa. Denetik ikus daiteke bertan, baina paisaiak eta animaliak dira nagusi.

Plano hurbilean

Mendiko argazki ugari ikus daitezke: minatan dagoen Burtunzuingo aterpea eta ingurunea, Saturditik ateratako Txindokiko ikuspegia... Alegia

inguruko paisaiak ere jasotzen dira: Langaurre, Franconi elurtuta...

Bere bizitzako lehenengo hamabi urteak Ugarten eman zituen Patxi Renobalesek; bere ama jaiotako Ugarteko baserriko argazkia ere erakusgai aurkitzen da Jubilatuen tabernan.

Animalien argazki ugari daude, bestalde: oilarra, txoria, katua, behiak... Plano hurbilean ageri dira guztiak.

GIZARTEA ▶

Orendaingo KZgunea berriro ere zabalik, konexio arazoak konpondu eta gero

Ekainean arratsalde irekiko da, 16:00etatik 20:00etara bitartean

O.ESKIXABEL

Konexio arazoak medio, itxita egon da Orendaingo KZgunea; orain, berriro zabaldu ditu ateak.

Hilabete honetan, arratsalde, 16:00etatik 20:00etara, egongo da irekita; ikastaroak aste batekoak edo bikoak izango dira, 16:00etatik 18:00etara eta 18:00etatik 20:00etara. 16

urtetik gorako edonork eman dezake izena ikastaroetan; izena KZgunean edo udaletxean eman dezakete.

Amezketan, datorren astelehene, ekainaren 14etik 25era bitartean, Interneten nabigatzeko hastapen ikastaroak eskainiko dira. Bi ordutegi desberdin daude: 09:00etatik 11:00etara eta 11:00etatik 13:00etara.

Ordutegi berria Bidegoianen

Bidegoiango KZguneko ordutegia aldatu dute ekainaren 18an udako oporrak hartu bitartean. 14:30etik 18:30era egongo da irekita. Ikastaroak, «14:30etik 16:30era bitartean izango dira, ikastaroetan izena eman duten gurasoei ondo datorkien ordutegia baita», azaldu du KZguneko tutoreak.

UGARTE ▶

Betizu jatea egingo dute hilaren amaieran

Izena ekainaren 20a baino lehenago eman behar da Elkartean edo Goikoetxean

O.ESKIXABEL

Betizu jatea egingo dute lehenengo aldiz ugarterrek hilaren 26an. Bazkaria, Ugarteko elkartean izango da, 14:00ak aldera.

«Aurreko jardueretan gertatu den bezala—gaztain jatean, sagardotegiko bazkarian...—, ahalik eta jende gehienak parte hartzea nahiko genuke, denon artean egun eder bat pasatzeko», azaldu dute antolatzaileek.

Bazkariarako izena emateko azken eguna hilaren 20a izango da. Izena, Elkartean edo Goikoetxea tabernan eman daiteke.

Goizean, oso goizetik, elkartean bertan erreko dute betizua; bazkaltzeko ordua baino lehen joan nahi dutenek izango dute zer ikusia.

BIDEGOIAN ▶

Finalerdietan jokatu dute bi pilotari ezagutuko dira

HITZA txapelketako final-laurdenetako bi partida jokatu dira Bidaniako pilotalekuan

O.ESKIXABEL

Pasa den astean HITZA txapelketako kadeteen mailan finalerdietarako sailkatu ziren bi pilotarien izenak ezagutu ziren: Otxandorena eta Koldo Galarraga.

Gaur, falta diren beste bi pilotariak ezagutuko dira, Bidaniako pilotalekuan jokatu diren partidetan. Telletxeak Goikoetxearen aurka jokatu du, eta Ojuelek Iturrioz izango du aurrez aurre.

Finalerdiak datorren asteazkenean, hilaren 16an, jokatu dituzte.

TELEFONOAK ▶

LARRIALDIAK

▶ 112

Alegialdea. Osasun z.: 653212
Anoeta-Alkiza-Hernalde.

Medikua: 65 23 39

Asteasu. Medikua: 69 24 23

Berastegi-Elduain. Medikua: 68 33 61

Bidegoian. Medikua: 68 11 34

Ibarraldea. Osasun etx.: 672411

Ikaztegieta. Medikua: 65 33 29

Irura. Osasun zentroa: 69 07 20

Leitza. Osasun z.: 948 510800

Lizartza. Medikua: 68 20 77

Tolosa.

▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111

▶ San Esteban: 00 68 00

▶ Gernikako arbola: 00 69 00

▶ Amaroako dispen.: 67 26 37

▶ Asunzio klinika 67 57 99 -

67 53 90 (larrialdiak)

▶ Udaltzaingoa: 67 58 58

▶ DYA: 67 25 36

▶ Gurutze Gorria: 67 48 88

▶ Ertzaintza: 53 88 20

Villabona-Aiztondo.

Anbulatorioa: 00 69 70

Zizurkil. Aiztondo zerb.: 693930

GARRAIOAK

▶ Renfe Tolosa: 65 28 89

KOMUNIKABIDEAK

▶ Galtzaundi: 65 50 04

▶ Aiurri aldiakaria: 30 07 32

▶ Tipi ttpa ald.: 948 631888

EUSKALTEGIAK

▶ Aitzol (Tolosa): 65 10 06

▶ Arramele-AEK: 67 12 14

▶ Ika (Leitza): 948 61 07 76

GUARDIAKO FARMAZIA

Gaur. Oiarreaga, J., Martin Jose Iraola, 10 (Tolosa). 67 51 18.
Plaza M., Elbarren, 36, (Leitza). 112

TOLOSALDEKO HITZA

Publizitatea. 661 67 88 18.
tolosaldean_publi@tolosaldeko-hitza.info

Tolosa. 687 41 00 82 -

687 41 00 33.

tolosa@tolosaldeko-hitza.info

Villabona-Aizt. 687 41 00 22.

villabona_aizt@tolosaldeko-hitza.info

Anoeta. 687 41 00 22

anoeta@tolosaldeko-hitza.info

Ibarraldea. 687 41 00 32.

ibarraldea@tolosaldeko-hitza.info

Alegialdea. 687 41 00 34.

alegialdea@tolosaldeko-hitza.info

Leitza. 687 41 01 18.

leitza@tolosaldeko-hitza.info

iragarki laburrak ▶

CASTING-A

Antzezlea. Antzerki lan batean antzezleko mutil euskalduna behar dugu. Gutxienez 1,75 m. Ostirala 11n, 15:00etan, San Esteban auzoa 31, 7. pabiloian. Tolosa.

IBARRA ▶

Haitzetan Rajuren mendi irteerako izen-ematea

Bihar amaituko da Haitzetan-Rajuk antolatutako igandeko Gorritira mendi irteeran izena emateko epea. Ondoko tokietan lortu daitezke txartelak: Ibarrako Atarin eta Zubiaurren, eta Tolosako Denak eta Rakun. 10:00etan irtingo dira plazatik ibiltariak, eta bazkaria izango da Gorritin. Itzulera, autobusez izango da. 18 euro ordaindu behar dute langileek; langabetu eta ikasleek 12.

BERASTEGI ▶

Ariketa fisikoa aztergai, bihar Gaztainondon

Ariketa fisiko orekatuaren onurak izango ditu aztergai bihar 17:30ean Izaskun Arri-lagak, Gaztainondon eman-go duen hitzaldian. Jendea ariketa fisikoa egin dezan bultzatzea, norberaren gaitasunak onartzea eta onura fisikoen, psikikoen eta soziale-tan aisi denbora beteta izate-aren bilaketa sustatzea dute helburu hitzaldiaren bidez. Besteak beste, ariketa fisiko-aren onurak eta abantailak, ariketa eginda gaixotasunak ekiditea, gomendio orokor-rrak, ariketa motak, eta arike-ta fisikorik ez egiteko arra-zoiak aipatuko ditu Arrilla-gak. Gipuzkoa Kutxa Aulak antolatu du hitzaldia. Bestal-de, podologo hilaren 19an, goizean, izango da Gaztai-nondon. Izena emateko deitu 943-68 32 02ra (Miguel).

IBARRA ▶

Gazte Festetarako bilera egingo da gaur Kultur Etxean

Gazte Festetako (hilaren 18tik 20ra) Koadrila Egunari buruz bilera egingo dute gaur Kultur Etxean, 20:00etatik aurrera. Bilerara azaltzea garrantzitsua dela aipatu dute antolatzaileek, besteak beste, bazkariko menua aldatu edo ez erabakiko baitute bertan.

IBARRA ▶ GIZARTEA

DANI GIBELALDE

Oihartzun eta tradizio handi-koa da Sendi Ekintzak antola-tutako San Bartolomeko zozke-ta. Ohi bezala, jadanik salgai dira zozketaren txartelak sei tabernetan: Atari, Zubiaurre, Gurasoen elkarte, Txumitxa, Danon Txokoa eta Arkaitz-azpi. Txartelak euro bat balio du, eta bakoitzak hiru zenbaki ditu. Ohi bezala, jendaurrean egingo da zozketa, jaien aurretik, abuztuaren 19an.

Sariak handiak dira, uga-riak, eta jende askoren artean banatuko dira. Izan ere, 60 eu-roko hoge sari, 120ko hamar, 180 bost eta 240ko bost zozke-tatuko dituzte. Orotara, ia milioi bat pezeta saritan.

Sarietarako ez ezik, euroa atera zenetik elkartasun kei-nuetarako bideratzen dute zozketako dirua Sendi Ekintza-koek, hain zuzen, txartel bakoit-zeko hamasei pezeta. Guztira, 100.000 pezeta inguru. Lehen urtean herriko Joxe Mari Gar-mendiari eman zioten dirua Ekuadorreko proiektu batera-ko, eskola bat eraikitzen lagun-tzeko; bigarren goan Tolosal-dea Sahararekin elkarteari. Aurtun, herriar baten bidez Txileko Unibertsitateko kide Fernando Burrws-ekin jarri dira harremanetan, eta Villari-cako komunari (Txile) emaku-me maputxez osatutako teile-

Sendi Ekintzako zozketaren txartelak salgai dira tabernetan

Bildutako diruaren zati bat emakumeez osatutako maputxeen teileria bat laguntzeko erabiliko dute



Txileko Fernando Burrws eta Sendi Ekintzako lehendakari Eli Nosellas, elkartearen atarian. D. GIBELALDE

ria bati laguntzeko erabilitea erabaki dute. Pu Folil taldearen programa bati esker emaku-

meak antolatu, autonomo bila-katu, eta artilea lantzeko meto-do tradizionalak berreskuratu

eta komertzializatzen hasi zi-ren. Haien zati izango da, beraz, diru laguntza.

FERNANDO BURRWS ▶ TXILEKO UNIBERTSITATEKO KIDEA

«Maputxeen autoestimazioa berreskuratu eta euren kulturaren garrantziaz jabetzea nahi dugu»

Txileko Unibertsitateko kideak Ibarrara bisita egin du eta HITZA-rekin hitz egin du. Besteak beste, maputxeen erakundeei laguntzen, eta kulturen arteko harremanak hobetzen saiatzen dira unibertsitate horretan. Zein da maputxeen egungo egoera?

Artileak lantzeko sistema tradi-zionalak eta euren kultura be-rreskuratzen ari dira. Maputxe izateagatik baztertuak izan dira beti, autoestima galdura-zi eta ez zirela ezer sinestara-zi baitziren Txileko gizarteak. Bi mugimendu gertatzen ari dira: batetik bertako kulturaren ai-tortzea, eta bestetik, kontzien-

tzia hartzea beraien tradizioen garrantziaz. Gu haien produk-zio sistema, komunitatea eta nortasuna indartzen ahale-gintzen gara. Helburu nagusia euren autoestimazioa berres-kuratzea da, euren kulturak elementu oso baliozkoak di-tuela ohartaraztea, eta euren produktuak merkatura era-man ditzazketela jabetzea.

Zeintzuk dira haien beharri-zan nagusiak?

Egunerokotasunean eragiten dieten erabakietan parte har-tzeko aukera eman behar zaie —hezkuntza, osasuna...—, errealtateaz duten ikuspegia aintzat hartu... Lehenetsunak

eurek ezarri behar dituzte. Bizi baldintzak hobetzen lagundu behar zaie, teknologia eta errekurso berriak sartu, eta dirua inbertitu merkatura sar-tzeko eta oinarritzko beharri-za asetzeko. Hezkuntza oso garrantzitsua da eta ez da ma-putxeen gizartera egokitu.

Zertan erabiliko da Ibarran bildutako dirua?

Batez ere, ardiak erosten, oiha-lak egiteko makinarian, eta ar-tilea tindatzeko tresnerian. Maputxeek egindako produk-tuen eskaera handia dago. Pu Folil taldearen ospea handi-tzen joan da; egun ez dute es-kaera guztiari aurre egiterik

baliabiderik ez dutelako. Villa-ricakoentzat izango da lagun-tza, baina beste komunitatzat eredugarri bilakatuko da teile-ria hori.

Emakumeek bakarrik lan egiten dute teileria horretan. Maputxeen artean, isolatuena emakumea da. Gizona izan da beti hirira joan dena. Emaku-meak bildu, eta haien artean gauzak elkarbanatu, antola-tzea nahi dugu. Haien artean elkartzea esperientzia oso aberasgarria izan da, besteak beste, emakume bezala ditzu-ten arazoetaz hitz egiteko, au-toestimazioa altxatzeko eta se-guruago sentitzeko. ◀

HITZA, eskualdeko plaza
Milaka aleko tirada egunero; etxera banatuta

661 678 818
Toki aproposa iragartzeko

LEITZA ▶ GIZARTEA

Karlos Agirre izanen da Aurrera KEko lehendakari hurrengo bi urteetan

Larunbat iluntzean burutu zen batzarrean zuzendaritza batzorde berria izendatu zuten, beste gaien artean



Aurrera KEko egoitza, Labetxean. JAIONE ASTIBIA

JAIONE ASTIBIA

Larunbatean, ekainak 5, burutu zen batzarrak hala erabakita, Karlos Agirre *Gazteluna* izanen da Aurrera kirol elkartearen lehendakari hurrengo bi urteetan.

Zuzendaritza batzordea aldatzeko xedez batzarra egiteko hainbat saiakera egin dituzte, azkenekoa larunbat honetan. Erabakirik hartzeko modurik ez bazen elkartearen geroa zailantzan zegoen, eta horrekin bere gain dauden hainbat kirol talde eta ekitaldi.

Batzarera hala ere, ordurarteko zuzendaritza batzordeko eta batzordeetako kideez gain, hiru bazkide besterik ez ziren bildu. Mahai gainean jarri zen zuzendaritza berritzeko proposamena bakarria izan zen, besterik aurkeztu ez bazen, hutsik ez gelditzeko, aurrekoek egindakoa. «Hau egin ezean, elkartea desegin beste erremediorik ez zegoen eta...», zioten. Eta zuzendaritza horrela eratzea onartu zen.

Aurrera kirol elkarteari orotara adin tarte guztietako hiru-rehun bazkide ditu. Bere jardunik garrantzitsuena kirol arloan egiten du: ume eta gazte-txoen futbol txapelketak, koa-drilen arteko Kaskagorren Liga, Pilota Eskola, Mendibil

mendi taldea, Aurrera futbol taldea, Laisterketa krossa, plazako pilota txapelketa... Alegia herriko kirol jardunaren zati handiaren antolaketaren ardurak elkarteari du bere gain. Beste arloetan ere parte hartzen du ordea, herriko festa, ihote, San Juan Bezperako festa... Eta Eguberritako ospakizunak. Kirolean ez ezik, herriko kultur ekitaldietako pieza garrantzitsua ere bada beraz elkartea.

ZUZENDARITZA

- ▶ **Lehendakari.** Karlos Agirre *Gazteluna*.
- ▶ **Lehendakari orde.** Olatz Arizmendi.
- ▶ **Idazkari.** Leire Karrera.
- ▶ **Diruzain.** Jaione Alduntzin.

OLATZ ARIZMENDI ▶ AURRERA KIROL ELKARTEKO LEHENDAKARI OHIA ETA BATZORDEKIDEA

«Hainbeste bazkide izan eta ez dut ulertzen geroaz kezkarik ez izatea»

▶ Olatz Arizmendi Aurrera KEko lehendakari izan da azken bi urte hauetan.

Zenbat denbora daramazu Aurrerako zuzendaritzan?

Zuzendaritzan 1999az geroztik nago eta horietatik lehendakari gisa, 2002 eta 2003 urteak osoak eta 2004ean orain arte.

Luze egin zaizu edo.

Bai, batez ere ardura asko hartzen delako. Lana ere bada, baina hori laguntzarekin aurrera atera daiteke eta hori beste ki-deengandik jaso dut. Baina ardura norbere kontua da.

Zergatik diozu hori?

Etxearen ordainketa izan da gure buruhausterik handiena, diru askotaz ari gara hizketan eta horrek kezka sortzen du nahita ez. Orain jadanik bi urte bakarrik geratzen zaizkigu hori kitatzeko. Eta bestelako antolaketetan ere, ardura berezia izaten da beti, jendea ere zuregana zuzentzen baita.

Esperientzia txarrik edo izan duzu urte hauetan?

Esperientzia txarra baino, bizitu gunden egoeragatik: aurtengo ihotetan, azken unean

aurkitu genuena. Eginak egon behar zuten gauzak, egitekoak zeudela ikusi genuenean. Urduritasuneko uneak izan ziren.

Onik ere izanen zenuen bada.

Txupinazoa botatzea, oso esperientzia ona izan zen. Eta Abel Barriolari egin zitzaion omenaldian parte-hartze zuzena izatea ere bai.

Zenbat bazkide daude elkartean?

300 lagun gara, adin klase guztietakoak, umetatik heldutaino. Baina askok eta askok,



J. ASTIBIA

kuota ordaindu eta ez dute deustarako erabiltzen lokala.

Baina antolaketan eta jendea ari zarete, ez?

Bai, baina betikoak. Batzorde desberdinak eratuta daude eta horietan lanean ari da jendea, baina gutxi gara. Bazkide gehienak lehen esan bezala,

kuota ordaindu eta ahaztu egiten dira.

Zergatik diozu hori?

Bada, aspalditik ari ginen zuzendaritza batzordea berritu nahian eta hainbat deialdi egin eta inor ez da bileretara joan. Eta azkenean elkartea desegiteko zorian egon da eta horrekin bere gain dauden talde eta ekimen guztiak, esate baterako pilota eskola, ihoteko eskea... Ez dut ulertzen geroaz kezkarik ez izatea. Ardura gehiago izan beharko luke jendeak.

Egin nahi duzu eskaeraren bat?

Bai. Jende berria behar da: SOS! Lehengoak utzi joaten badira, berririk sartu gabe, gauzak antolatzeari utzi egiten zaio eta hori ezin da gertatu. ◀

IRAGARKI LABURRAK ▶



Anoeta. Etxebizitza eta garajeak, eraikuntza berriak, azken aukerak.

Anoeta. 370 m²-ko 2 pabiloi modulotako salgai, berriak.

Tolosa. Etxe abikia. 180m²-koa, lau gela, bainugela eta komunak. Altzariz hornitutako sukaldaria.

Tolosa. Nafarroa etorbidean 140m²-ko etxebizitza. Garajea aukeran.

Tolosa. Erremontari kalean berrituta dagoen etxebizitza salgai, 2 gela, egongela, sukaldaria, bainugela eta trastelekuarekin.

Tolosa. Pablo Gorosabel kalean, garaje ibia salgai. 16m²-koa. **Ibarra.** 85 m²-ko etxebizitza.

Berritzeko. Lehenengo pisua. Kanpoaldera.

Ibarra. 85 m²-ko etxebizitza. Egoera onean. Altzariez hornitua. 198.335 euro.

Donostia. Rodil zeharkalean 42 m²-ko apartamentu berritua, erabat kanpoaldera. 234.400 euro.

Itsasondo. Eraikuntza berriko etxebizitza; duplexa eta jardina beheko solairuan.

Segura. 60 eta 90 m²-ko 2 etxebizitza salgai.

Alegia. Berrikuntza behar duen etxebizitza salgai; hirugarren pisua, garajea eta trastelekuak.

Irura. Apartamentua jardinarekin, beheko solairuan.

Jatetxea Hernialden. Hernialden, beharrezko guztiarekin hornitutako jatetxea; aparkaleku zabalarekin eta sagardotegiarekin uztartu daiteke.

Aia. Baserrira salgai, bi solairukoa, bakoitza 250 m²-koa, gustu handiz berritua, 61.000 m²-ko lursailarekin hornitua. Bi etxebizitza egiteko aukera.

Lizartza. Solairuko 130 m² dituen hiru solairuko baserri berritua.

Lizartza. Berrikuntza behar duen baserrira. 21.000 m²-ko lursaila.

Lizartza. 14.000 m²-ko pabiloiak

salgai. Eraikuntza berrikoak.

Azkarate. 3 solairuko baserrira salgai, berritzeko.

Belauntza. 1.060 m²-ko pabiloia, erabat garbia, argitsua eta garabiarekin.

Belauntza. 264 m²-ko eta 275 m²-ko pabiloi berriak salgai. Estreinatzeko.

Aizarnazabal. 50.000 m²-ko lursaila salgai.

Matxinbenta. Berritu beharreko lau solairuko etxebizitza.

Ligorreta. 1.000 m²-ko pabiloia salgai, 5.000 m² dituen lursailaz hornitua, erosteko edo alokatzeko aukera.

press to kalitatezko garbiketa azkarrak 

EDREDOIA GARBITZEAGATIK EDO ARROPA KONPONTZEAGATIK
JANTZI BATEN GARBIKETA OPARI

ALFONBREN GARBIKETA: 7,50€/m²ko
San Frantzisko, 19 • **TOLOSA** • 943 65 38 77